

BALIO PROPOSAMENA

Euskal Herrian herrialde asko daude. Ideia ona izango litzateke, nazioarte mailako artistak ekartzea. Eta zeintzuk antolatuko dute Euskal Herriko herri baten festa bat Euskaldun batzuk baino hobeto?

Euskal Herrian, normalean, politikariek antolatzen dituzte herriko festak Kultur Zinegotzia buru delarik. Honela, batzuetan islatuak geratzen dira kolore eta ideia politikoak; baita gazteriarekin edo orokorrean herriko biztanleriarekin konektatzeko gaitasun eza. Egoera honen aurrean, gure enpresak arazo hauek ekiditzen ditu eta herriei kalitatezko festa modernoak eskaintzen dizkie.

Merkatu segmentu honek ez du enpresa pribatu askoren partaidetzarik. Dagoen gutxia konferentziak, ezkontzak edota bestelako ekitaldiak antolatu ohi dituzte, gure enpresa, herriko festetan askoz espezializatuagoa dagoelarik. Bestalde gure enpresak ematen dituen fruituak ez dira sektore publikoak eman ditzazkeenak bezalakoak, gauza hauek antolatzera dedikatu dezaketen denbora limitatua baita eta gu sektorean profesionalak gara.

Lehen aipatu dugunez herri bateko biztanleria guztiarekin konektatzeko ahalmena izateaz gain, kalitatezko festak antolatzen ditu ETXEBE enpresak. Adin guztietako pertsonak ikusi eta bizi ditzazketen festak alegia. Izan ere, kontratatutako artistak herri edo zonalde bakoitzaren arabera izango dira.

Aipagarri den beste abantaila bat gure adina da. Adin guztietako jendea dago gure enpresan, beraz, badakigu nola antolatu adin guztientzako dibertigarria izango diren herri festa batzuk. Gainera, esperientzia askoko jendea dago gure departamentuetan. Bukatzeko, gure partaidetza sistemak direla eta, denbora guztian biztanleen "input"-ak jasotzen ari gara, honela beraien gustuak eta preferentziak nola aldatzen diren ikus eta azter ditzakegu.